

## Maiatzak 16tik 23ra

[Joxe Mari tabernan]

### Argazki erakusketa

"Egurrezko bihotza". AITZOL DE KARLOS argazkilaria

## Maiatzak 22, ostirala

[Biteri Kultur Etxean (sarrera: 6 euro)\*]

19:30etan **Kontzertua**

MUNDUKO BEAT (Madril)

## Maiatzak 23, larumbata

[Ezkiaga Pasealekuan (Tilos)]

12:00etan **Txalaparta Erromeria**

Hernani Musika Eskolako Alboka, Dultzaina

Trikitixa eta Txistu taldeak kale bueltan.

Txalaparta saio libreak

14:30etan **Herri bazkaria**

(Txartela alde zurretik erreserbatzea komeni da: 16 €\*)

17:00etan **Txalaparta ekitaldi nagusia**

Hernaniko Bertso Eskolako BERTSOLARIAK

ZUAZNABARTARRAK eta GOIKOETXEATARRAK

Bizkaiatik ZUKUT taldea

Nafarroatik HUTSUN eskolako txalaparta taldea

Arabatik HARRESIAN ZULO

Gipuzkoatik OREKA TX

Madriletik MUNDUKO BEAT

Hernaniko eskolako TTAKUN TTAN TTAKUN

23:00etan **Txalaparta party aparta**

Dj. BARRU-rekin

[Atxur tabernan]

Antolatzaileak:



Hernani Musika Eskola Publikoa  
Txakun ttan ttakun taldea

Babeslea:



Hernaniko  
Udala

Laguntzaileak:



Orona



29. Txalaparta  
2015 festa Hernani  
Maiatzak 22-23

Hernani Musika Eskola Publikoa - Txakun ttan ttakun Txalaparta Taldea

Atzieta 4 - 20120 Hernani - Tel. 943 33 70 50

(\*)e-posta: aitorbeltran@yahoo.es / soinuenea@soinuenea.org

# 29. Txalaparta festa Hernani 2015 Maiatzak 22-23

1985-86 ikasturtean martxan jarri zen Hernaniko Udalak sustatutako eta babestutako Musika Eskola Publiko berria. Eskola honek arautu gabe zeuden herri soinu-tresnak ikasteko eskaintza ezarri zuen, horien artean txalaparta.

Ikastaroen iraunkortasuna eta iraupena, ikasteko behar zen materiala eta gutxienezko baldintzak betetzen zituzen lokalak eskainiz, Hernaniko Musika Eskolak neurri handi batean egoera normalizatu zuen. Aurreko baldintza betetze horrek metodologia egoki bat osatzeko aukera eman zuen eta pixkanaka ikasbidearen finkatzea, progresioa eta lanerako bide sistematizatu etorri ziren.

Hernaniko Txalaparta Eskolak berehala ekin zion musika eta soinu-tresna honek behar zuen ezagupen, erakustearen eta zabalkundearen aldeko Eskola barruko nahiz kanpoko lan eta ekintzei. Horrela, klasetako egitarau ikasketaz gain, bestelako jardunetan murgildu zen:

- Txalaparta joaldiak Hernani inguruan antolatutako ekitaldi ezberdinetan.
- Guk emandako eta beste eskolek eta taldeek antolatutako Txalaparta Ikastaroen bitartez Hernaniko Eskolaren eredu zabaltzen.
- Txalapartarien Topaketa antolatzen. Jardunaldi hauek TXALAPARTA FESTA izenarekin ezagutzen ditugu.

Orain arte ospatutako Jardunaldi hauetako edizioetan hiru atal nagusi bereizi ditzakegu:

- Atal teorikoa; mahai-inguru, hitzaldi, tailer eta antzeko jardueraz osatua.
- Emanaldi bereziak; urtean zehar txalapartari taldeek prestatutako lan musikalen aurkezpena.
- Txalaparta Festa, festa giroan Euskal Herriko herrialde ezberdinetako txalapartari onenen bilkura, non txalapartari gazteak eta beteteranoak plaza eta oholtza edo agertokia konparti-tzen dute.

## Etno-electrojazz

Tradición y vanguardia  
Txalaparta y electrónica

Madriren Txalaparta, Dj Cheff, potente groove creado por bajo y loops en directo, flauta travesera y percusión cubana. Novedoso cóctel el de este combo madrileño, que obtiene como resultado una pluralidad de ritmos y melodías que encandilan a todo aquel que los escucha.



# MUNDUKO BEAT

